

## Segurtasuna eta immigrazioa



Leihatila

CRISTINA BERLANGA

Aste honen amaierarako aurreikusitako Espainiari Afrikako kostak zaintzen laguntzeko Europako Batasuna bere mugetz kanpo egiteko den lehen kontrol operazioa; izan ere, handik —Afrikatik— irteten dira txalupak Europa hegoaldeko mugarantz. Era berean, AEB Ameriketako Estatu Batuetako guardia nazionala Mexikoko mugan ari da zabaltzen egunotan, paperik gabeko etorkinen helduera kontrolatzeko. Hedabideek eta hainbat alderdi politikok delinkuentziaren lotzen dute behien eta berriz immigrazioa kasu horietan; hori bihurtu dute segurtasun ezaren arrazoi. Horiek horrela, inbasioa jasateko eta kriminalitateak gora egiteko arriskua dagoela sinetsarazi ondoren erabakitzen dira konponbideak. Betiere, inbasio ideia, delinkuentziaren aurkako gerraren inguruko, sendotzen duen hizkera militarra erabiliz.

Hala, operazio militar bat hasi dute, Espainiako Guardia Zibilak diseinatutako plan batean oinarritutakoa eta mugen kontrolerako Europako agendak koordinatzen duena; horrekin batera, baita europarrak lasaituko dituen ofentsiba diplomatikoa ere. Carlos Montemayorren arabera, paperik gabeko etorkin inbaditzailetzat hartzeko sendotu egiten du estatubatuarren gerra baten aurrean —herrialdeak gaizkiaren eta terrorismoaren ardatzaren kontra duena— dauden ustea.

Immigrazioa dela eta segurtasuna bilatu behar hori ez da berria, ordea. Egia da Europak eta AEBek langile merkeak behar dituztela, baina egia da, era berean, ez dutela nahi etorkinak bertan gera daitezten. Migrazio fluxuen kontrola eta mugen itxia dira migrazio politiken ardatzak. Orain arte, Europako Batasunetik hurbilen dauden herrialdeek eta Europako Batasuneko kide izan nahi dutenek lagundute batez ere helburu hori lortzen. Izan ere, laguntza hori ematea izan da EBko kide izateko baldintza.

Gainerako herrialdeei beren mugak kontrolatzea eta etorkinak aberriaritzea exijitzen diete, merkataritza eta kooperazio akordioak sinatuko badituzte.

Jauzi kualitatibo handia da Europako militarrek Afrikako kostara bidaltzea, Europako Batasuneko mugak hedatzeari eta estatu horien subiranotasuna mugatzeari dagokionez. Bai eta edozein herrialdeetatik —norberarenetik barne— irteteko eskubidea ukatzea ere, pertsona orori dagokiona. Operazio hori egin dutenek diote Afrikako estatu horiekin sinatutako akordioak direla horren oinarri juridikoa. Pan Africa 2006-2008 deitu diote, eta 90 milioi euroko aurrekontua du hasiera batean. Printzipio txalagarriak ditu oinarri, eta demokrazia, giza eskubideen errespetua, bakea eta segurtasuna xede; beraz, ez du zalantza izpirik uzten. Lankidetzat migrazio fluxuen kontrolarekin lotzea da helburua berriz ere, planaren xede eta lehentasun geografikoei (sorterriak eta etorkinen joan-etorriak) erakusten duten bezala.

Eta, berriz ere, ukatu egiten da migrazioen izaera konplexua, faktore ekonomiko, sozial eta indibidualak horretan duten zerikusia; kontrol hutsera mugatzen dute, eta hori herrialde igoerrei beraiei dagokie gero eta gehiago.

## «Hizkuntza politika berria behar da erabilera zabaltzeko»

Euskaldunek euskara erabiltzeko dituzten oztopoak gainditu behar direla dio Kontseiluak

JAKES GOIKOETXEA

Donostia

«Euskararen erabilera modan dago», esan zuen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak atzo. Ez zen ari euskara erabiltzeaz, euskara erabiltzearen premiari buruz hitz egiteaz baizik. Eta Kontseiluak euskararen erabilera areagotzeko hizkuntza politika «berria eta egokia» eskatu du, «hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa bukatuko duena».

*En castellano, por favor. Erabilera areagotzeko hizkuntza politikaren bila jardunaldi egin zen atzo Donostian, Euskararen Gizarte*

Erakundeen Kontseiluak antolatuta.

**OZTOPOAK.** Euskaldunak euskara erabiltzeko dituen oztopoetako batzuk zerrendatu zituen Mendigurenek. Alde batetik, «euskalduna ez dagoela legalki, politikoki, administratiboki eta sozialki egoki babestua». Bestetik, ezagutza handitu gabe ezin dela erabilera areagotu. Mendigurenek hezkuntzaren garrantzia eta egungo hutsunea nabarmendu zituen: «Gaur egun hezkuntza sistematik euskaldunak gabe ateraten dira hiru ikaslelik bi».

Kontseiluko idazkari nagusiak arazo gehiago aipatu zituen: legeek euskararen aldeko neurriak behar izaten ez dituztenez, hizkuntza eskubideen urraketak eragiten dituztela; ez dagoela politikarik hizkuntzaren kalitatea areagotzeko; euskararen presentzia txikia dela

teknologia berrietan; eta gizarte paisaia ez dagoela egoki euskaldunduta.

Egoera horren aurrean, Kontseiluaren iritziz, «hizkuntza politika berria behar da erabilera zabaltzeko». Honakoak dira hizkuntza politika berri horren oinarriak: epe eta helburu zehatzak edukitzea; «bestela lausotu egiten baita»; bitarteko ongi hornitua, «bestela ez baitira helburuak betetzen»; sailartekoa; gizarte sektore guztietara iristeko modukoa; administrazio guztiak aintzat hartzen dituen; hizkuntza eskubideak bermatzeko egina; Euskal Herri osoan aplikatzeko modukoa; ikuspegi osoa duena; erakundeen eta herri mugimenduen elkarlanean egina; eta corpus juridiko eraginkorrak babestua. «Euskararen erabilera areagotzea ez baitago soilik hiztunen borondatezko jarretan», esan zuen Mendigurenek.



Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik', atzo azalpenak ematen. CARLOS WALTER / JARCAZ/IRIS

## Txillardegik, maisu

Euskararen ezagutza portzentajea handia izan arren, erabiltzeko dauden zailtasunak nabarmendu dituzte idazle eta hizkuntzalariak.

J. G.  
Donostia

Erijoia mahai gainean. Errotuladorea eskuetan. Paperak begiratu beharrik gabeko azalpenak. Ariketa matematikoko. Teoriak. Anekdotak. Maisu lanetan, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik, idazle, hizkuntzalari eta soziolinguista. Ikasgaia: euskaldunok euskararekin dugun atxikimendua azterketak matematikoa.

«Badakit batzuek beldurra eta alergia diezuela planteamendu matematikoei», esan dio Kontsei-

luak antolatutako jardunaldian bildutako entzuleriari. «Lasai, kalleko adibideak hartuko ditub».

Lau lagunekoa taldea: bat erdaldun elebakarra da eta gainerako hirurak, berriz, elebidunak, gaztelania eta euskara dakitenak. «Mila aldiz» gertatzen den egoera. Elkarrekin bikoteka eta hirukoteka harremanetan hasi eta «arazoak» sortu dira, «automatikoki».

Egoera horretan elebidunak nagusi direla dirudi, «baina badakigu ez direla», esan du Txillardegik. «Esaten denaren kontra, elebidunak ez du ezer inposatzen, erdaldun elebakarrak inposatzen du».

a eta x hizkien konbinazioak idatzi ditu arbelean. Portzentajeak ateratu ditu. Emaitza: erdaldun elebakarra dagoen bikote eta hirukoteguztietan gaztelaniaz hitz egiten

da, eta elebidunak bakarrik daudenetan ez dago bermatuta euskaraz hitz egiteko dutenik. Zenbat eta talde handiagoa, orduan eta gaztelaniaren erabilera handiagoa.

**HIRU PROPOSAMEN.** Egoera ikusita eta matematikan oinarrituta, erabilera zabaltzeko hiru proposamen egin ditu Txillardegik. Alde batetik, ezagutza pasiboa handitzea, euskalduntzea. Bestetik, elebidunen leialtasuna, militantzia. Eta hirugarrena, «arazo moralak edo politikoak sortzen dituen», anisotropia: hizkuntza aintzat hartzea biziak erabakietan eta bizimoduan. «Euskaldunen artean biltzea, elkartzea, biltzea. Jendea euskal komunitatean mugitzea. Ez da erraza, baina hori egiten ez badugu, oso zaila da ezer egitea».



Etorkinen ontzi bat Kanarietara iristen, atzo. MANUEL LERDIA/VEF